

TXIKITTO

2010-06 • 113. zenbakia



Ondo pasatu
jaiak eta uda!

Berriak



Aspaldiko lagunok! Zer moduz azken txanpan? Ia ez zaigu ezer falta, konturatu orduko San Juan suan dantzan ibiliko gara. Hona hemen **Arrateko Andra Mari** eskolako berriak hiru hileko honetan: Maiatzaren 4an 1. eta 2. mailakoek Deba Natura txangoa izan zuten.

5. eta 6. mailakoak Zeramika eskolan izan ziren hilaren 6an eta bertan eskolarako mural bat egin zuten. Laster ekarriko digute!

Ikasle hauek drogomenpekotasun tailerra ere izan dute.

1., 2., 3. eta 4. mailakoek Antzerki jardunaldietan hartu dute parte, bertara joan eta antzerki politikak ikusiz.

Maiatzaren 20an eskolako jaialdia egin genuen. Familia eta auzokideak bertan izan genituen gure emanaldia ikusi eta txalotuz.

25ean Bertso Jaialdian hartu genuen parte 5. eta 6. mailakoek, beste eskola

batzuekin batera urte osoan egindako lanaren emaria agertzeko.

26an Udal plenoan parte hartu genuen, Agenda 21ekin lotutako ekitaldian.

27an 5. eta 6. mailakoak Urdaibai ekosistema aztertzerantz joan ziren eta Madariaga dorretxea ere ikusi zuten.

Hiru hileko honetan irrati saioak ere egiten dihardugu ostiralero; bakoitzean talde batek bere emanaldia egiten du.

Oso gustura entzuten dugu denok!

Ekainaren 7an Patxi Zubizarreta izan dugu eskolan, bere lana nola, noiz, non e.a., zelan egiten duen azalduz.

Eta laster bost urtekoak 1. eta 2. mailakoekin Lurraskara joango dira, 14an eta 15ean.

Hainbeste lan eginda, zeinek dio oporrik behar ez dugunik?

Oso ondo pasa uda eta datorren ikasturtera arte!

ARGITARATZAILEA: "...eta kitto!" Euskara Elkartea, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776.

ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.

ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA: Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

ARGAZKIAK: ...eta kitto! aldizkariako argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena.

AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar.

COPYRIGHT-A: Txikitto!

LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96



Euskara Elkartea

Eibarko Udalek diruz lagundutako aldizkaria



IRAILETIK AURRERA GEHIAGO!!!

Kurtsoaren amaiera heldu da; laster batean ez duzue eskolara gehiago joan beharrik izango. Horrekin batera Sanjuanak datoz, azken aldian baino egun gehiago izango dituztenak gainera. Eta herriko jaiak amaitu bezain pronto hasiko dira gurasoen oporraldiak ere: batzuenak lehenago, besteenak gero, lagun eta familiarekin inoiz bezala pasatzeko aukera izango duzue. Aprobetxatu behar den moduan denbora guzti hori, hondartzan, mendian edo herrian bertan.

Eta bitartean guk ere oporralditxo hartuko dugu; baina, lasai, zuendako datorren ikasturteko Txikitto! berria prestatzeko ere aprobetxatuko dugu. Aurrerapentxo bat baino ez: datorren ikasturtean zuen gurasoen sekretutxoak jakiten be saiaturko gara. Ordura arte, ondo pasatu oporraldia!!!



Denborapasak

Hizki ZOPA
 Hizki ZOPA HONETAN 6
 HITZ DAUDE TOPA ITZAZU

C	A	T	T	L	R	P	Q	N	Q	P	F
O	P	O	X	T	E	L	X	K	I	X	P
N	G	E	I	X	G	D	A	L	U	U	I
G	U	I	C	U	A	L	R	P	Z	P	R
U	O	N	L	P	L	E	A	A	C	I	U
I	A	S	E	T	I	T	M	R	O	R	L
T	I	N	A	X	X	A	E	N	N	U	S
O	A	P	P	U	A	S	L	S	G	L	T
S	S	Q	S	L	S	U	O	T	U	T	A
N	Q	A	P	E	N	L	A	L	I	X	S
N	X	N	A	T	L	M	S	X	N	U	L

- TROPATUSA

- KARAMELOA


- CONQUITOS

- TXICLEA

- PIRULETA

- REGALIZA

EGILEAK: HELENE ETA ANDREA



HIZKISOP2

Aurkeko paillo Feko perleak
12 itz

- PATIÑO
- ANTONELLA
- NATIAS
- FACUNDO
- ALAN
- SANTIAGO
- CATERINA
- PIA
- JOSEFINA
- TAMARA
- SOFIA
- GUIDO

A	C	C	E	E	I	N	A	P
N	O	A	S	E	F	P	M	A
T	L	L	H	L	L	H	I	I
T	O	O	L	H	S	T	F	F
A	T	O	H	N	A	M	S	L
V	A	E	N	N	M	M	D	D
G	P	Y	T	E	E	A	P	O
O	F	O	X	V	L	S	R	R
O	N	I	T	A	V	L	T	U
T	N	T	P	L	H	M	A	V
T	A	M	P	A	T	O	P	R
A	F	A	C	U	M	D	O	Z



NORA ETA SARA

(Signature)

(Signature)


Denborapasak

Togatu to Disenatariok



E GILEAK: YOHIRAPETA JONE

zu margolarI



SAN JUAN SUAREN IRUDI XELEBREA TOPATU
DUGU. MARGOTUKO DUZU?

Aitona, etorkina amerikan

Bazen behin Eibar deituriko herri batean aitona zahar bat iloba bi zituen, eta hark bere istorio guztiak kontatzen zizkien: txikitakoak, orain dela urte bikoak... Halakoa zen aitona, kontu-kontaria.

Egun batean, bere ilobak korrika batean joan zitzaizkion esanez:

-Aitona, aitona! Gure gelan...

-Bai, gure gelara etorkin bat etorri da!

Aitonak irribarre egin eta esan zuen:

-Nola aldatu diren denborak! Nire garaian gu ginen etorkinak! -hasi zen azaltzen-. Ni Boise izeneko presa bat eraikitzen joan nintzen Ameriketara, eta ez nuen tutik ere ulertzen ingelesez -ilobak lurrean jarri eta adi entzun zioten-. Trenez 1.000 kilometro baino gehiago egin nituen eraiki-gunera hel-

tzeko; baina, nik ez nuen ez ulertzen, niri eta beste askori xafla bat zintzilik jarri eta bertan nire geltokiaren izena agertzen zen, baina treneko gizonak alkandoratik heldu eta kaleratu egiten gintuzten geltokian. Eta gaur egun denek dakite bi edota hiru hizkuntza behintzat! -kexatu zen aitona-. Baina bi edo hiru hilabete lan egin ondoren, oporrak hartu eta ez nintzen bueltatu.

Ilobek irribarre egin eta esan zuten:

-Zein argia zaren aitona!

-Zuen lagun berri horri ez tratatu niri tratatu ninduten bezala, eeeh!

-Ez, aitona!

Handik aurrera ilobek gauza berri bat jakin eta lagun berri bat egin zuten, Ilham deiturikoa.

Maddalen Yarza





Esaten dio ume batek aitari:

-Aita, aita, duela urtebete kreditu

txartela lapurtu zizuten, ezta?

-Ixo, ixo, konturatu nahiz lapurrak

zure amak baino gutxiago

gastatzen duela-eta.

Jone Z

Tren geltokian esaten dio Pedrok Jaimitori:

-Tren hori txokolatezkoa izango

balitz, nondik hasiko zinateke

jaten?

-Erroberetatik, horrela ez luke ihes egingo.

Nerea Etxeberria

Bilbotar bat bere autoa gidatzen

doala bapatean seinale bat

ikusten du. Hauxe dio seinaleak:

errebuelta arriskutsua ezkerretara.

Orduan, birritan pentsatu gabe

eskumara abiatzen da.

Oier

Matematikako irakasleak Arantza ateratzen du arbelera galdera

praktiko batzuei erantzuteko:

-Ea, Arantza, praketako poltsiko

batean 50 euro badituzu eta

bestean 100...

-Oi, jauna, orduan beste baten

prakak jantzi ditut.

Naia

-Ama, ama –esaten dio umeak.


-Zer gertatzen da –erantzuten du amak.

-Eskolan polizia deitzen didate.

-Zergatik ba, ume?

-Ixo, galderak nik egiten ditut-eta.

Leire Saiz



Txisteak



Mutil bat kafetegi batera doa eta kamareroa beltza zen. Esaten dio mutilak kamareroari:

-Eman Kas bat beltza.

-Zer, zer?

-Ebateko Kas bat beltza.

-Zer, zer, zer?

-Ebateko Kas bat beltza!

-Ah! Zuk nahi duzuna Coca-Cola bat da.

Irene Gonzalo

-Aita, aita, nagusia naizenean zu bezalakoa izan nahi dut.

-Ni bezain garrantzitsua izateko?

-Ez, ni bezalako seme bat edukitzeko.

Asier Divasson

Mozkor bat kale ilun batean zegoen eta moja bat pasatzen da.

Orduan mozkorrak esan zion:

-Defenda zaitez, Batman!

Ander Sanchez

Gizon bat bere lagunekin tabernara doa eta hurrengo egunean esaten dio bere lagun bati:

-Atzo nola itzuli zinen etxera,

mozkor-mozkor eginda zeuden-eta?

-Superman bezala.

-Nola, hegan?

-Ez, kaltzontziloetan.

Ekain Zarraua

Polizia bat inork pasatu ezin duen kurba batean dago. Bapatean moja bi motor baten gainean

kurba hori pasatzen dute:

-Nola demontre pasatu duzue kurba hori?

-Jesus gurekin dagoelako.

-Orduan isuna zuentzat, lagun bi baino gehiago motorrean joategaitik.

Ane Davila





Lapur bi daude bitxitegi baten
aurrean eta batek esaten dio
besteari:

-Zenbat emango digute diamante
hori lapurtzen badugu?
-Hamar-hamaika urte kartzelan.

Fermin San Emeterio

Ume batek amari esaten dio:

-Ama, zergatik sartzen duzu
pijama burukoaren azpian?

-Ez zimurtzeko.

-Orduan, zergatik ez duzu amona
sartzen?

Ane Montiel

Bazen behin mojen eliza bat eta
apaizak esan zuen:

-Hemen mutil bat dago gure artean
eta jakin behar dugu zein den.
Beraz, denok gona altxatu eta
bakoitzak bere izena esan
beharko du.

Lehengoa altxatzen du eta "Sor
Maria" dio, bigarrenak berdina
egiten du eta "Sor Juana". Horrela
batek esan arte:

-Sor... presa!

Enara Zufiria



Txikihoroskopo



Oporrak merezi dituzula uste duzu? Ez zara oso fin ibili kurtso osoan zehar, baina tira, atsedena merezi duzu, nola ez!



Uda zoragarria duzu aurretik. Alde batetik bestera ibiliko zara eta oso momentu politak pasatuko dituzu.



Azkenean! Iritsi dira udako oporrak, zurea bai poz handia! Irrikitan zaude hondartzara joan eta uretan murgiltzeko, baina ez ahaztu lehenik krema jartzea!



Ez duzu uda hasiera gozoa izango, baina benetan ederra izango da zuretzat urteko sasoi hau. Aspaldian pasatu ez duzun bezain ondo igaroko duzu.



Pertsona berezi bat ezagutuko duzu hurrengo asteotan eta berarekin egoteko gogo handiak izango dituzu. Zergatik ez zita erromantikoa prestatu?



Iraila heltzen denerako istorio ugari izango dituzu lagunei kontatzeko. Hori bai, ez zaltez pasa eta ez gezur asko esan, igarri giten zaizu-eta.

txikihoroskopoA



Hondartzan etzanda egoteko momentua iritsi zaizu. Jolasean, uretan, eguzkia hartzen edo dena delakoa egin ahal izango duzu.



Gauzak ez dira zuk nahi bezala irtengo udan; baina, planak betetzen ez badira ere, oso momentu politak biziko dituzu.



Zure pentsaera aldatuko da hurrengo asteotan. Gauza berriak biziko dituzu eta guzti horren gainean pentsatzen hasiko zara.



Lagunak agurtzea tristea da, baina pozik ibiliko zara udan eta bueltan berriz izango dituzu hemen. Bitartean gozatu ezazu.




Kurtso ahaztezina bizi izan duzu, baina uda heltzeko gogoa zeneukan eta ez da gutxiagorako izango, nahi beste atseden izango duzulako.



Bero asko pasatuko duzu uda honetan; beraz, freskatzeko edonola moldatu beharko zara. Ur asko edan eta, batez ere, ondo pasa!


WWW.TURISMOA.EUSKADI.NET

Hondartzaz, mendiaz, naturaz, kulturaz... gozatu nahi duzula udan? Ba ez zara urruti joan beharko, Euskal Herrian baitaukazu horretaz eta gehiagotaz gozatzeko aukera. Webgune honetan gure lurraldeko txokorik ederrenen gainean informazioa aurkituko duzu eta datozen hila-beteotan dauden ekintza guztiena. Nora joan, non lo egin, non jan, zer ikusi, zein ikusizunetaz gozatu, nolako kirolak praktikat... zure zalantza guztiak argituko ditu webgune honek. Udako oporren sasoia ahalik eta ondoen pasatzeko, zein leku hobeago Euskal Herria baino?



WWW.EUSKAL-HERRIA.ORG

Udako oporrak heldu dira eta ekintza asko egiteko denbora izango duzu iralera arte. Hondartza gustuko duenak hondartza bisitatuko du, mendia gustatzen zaionak mendia, eta azken aukera honetarako webgune egokia dugu hau. Euskal Herriko mendien gaineko informazio osatua aurkitzen da bertan, eta txangoak eta mendi ibilerak prestatzen erraminta paregabea da. Zenbat metro dituen mendiak, nondik joan daitekeen, zeintzuk diren bide errezenak, nolako oztopoak aurkitu ditzakegun bidean... Informazio horrez gain, bestetik, mendi bakoitzeko argazkiak ikusi daitezke eta GPS-an arrastoak jarri, badaezpada ez zaitezten galdu.



erreportajea



S a n j u a n a k S U T A N

Laga liburuak etxean eta ipini jaietako jantzia. Heldu dira Sanjuanak eta festarik ez da faltako herrian hainbat egunetan. Musika, antzerkia, jolasak, buruhandiak... ez da ezer faltako eta San Juan zoragarria pasatzeko aukera egongo da. Piztu da San Juan sua!

Erreportajea

Programazio betea izango dute Sanjuanek (aurten ere). Nagusi, gazte eta txikienek ondo pasatzeko eskaintza zabala izango dute eta bakoitzaren gogoen arabera izango da festa. San Juan sua piztu aurretik hainbat ekintza antolatu dira, 'Umeen eguna' barne; baina, behin sua itzalita, festak jarraitu egingo du.

Kurtso amaierako jaialdiak ohikoak izaten dira sasoi honetan; horrela, ekainaren 16an Juan Bautista Gisolak musika eskolako kon-

tzertua eskainiko dute Coliseoan 19.00etan, eta hurrengo egunean Musika Eskolako Nagusien Banda eta Folk-Rock-Pop banda Txaltxa Zelaiko kioskoan arituko dira 17.45etan. Hilaren 18an, bestetik, Ballet Eibarresekoen txanda izango da Coliseoan 20.30etan. Ekintza artistikoe-tatik at, 19an Arku Tiroa egongo da Txaltxa Zelaian 18.00etatik 20.00etara.

'Umeen eguna' 22an

Ekainaren 22a 'Umeen eguna' izango da. Egunean



zegar feriako atrakzioen prezioa 0,70 eurokoa izango da eta hainbat ekintza antolatu dira. 17.00etatik 20.00etara umeentzako puzgarriak eta zezen mekanikoa egongo dira Untzagan, eta 19.00etan 'Charabia' antzezlanaren egingo da Untzagan. Horren ostean egun handia iritsiko da: San Juan bezpera. Tradizioari jarraituz, 13.00etan harrera egingo zaie Lizarrako Dultzaineroei Estaziño kalean eta kalejira egingo Untzagaraino. Han jaiei hasiera ofiziala emango zaie txupinazoarekin. Arratsaldean, 19.00etan, Urkizutik erraldoi eta buruhandien kalejira egingo da eta, lasterketen ostean, ondo afaldu eta gero, 23.30etan San Juan sua piztuko da eta Eibarko Dantza Garaikidearen taldeak emanaldia eskainiko du. Ondo-



ren, burrunbadak hasiko dira danborradarekin.

San Juan egunean umeen txanda izango da eta eurak izango dira tanborra hartu eta kalera irtengo direnak. Hilaren 25ean, bestetik, 19.00etan erraldoi eta buruhandiak kalera irtengo dira berriz ere eta 23.00etan suzko erroberak egongo dira ikusgai Eibarko zervan. Aurtengo edizioan, bestetik, 26ra arte luzatuko da festa eta, egun horretan, 'Kresalaren usainak' umeentzako antzerkia egongo da Untzagan 19.00etan. Amaiera sutsua Sanjuanetarako.

Zu margolari



IGERILEKUA AUKERATU DUGU MARGOTZEKO.
ZEIN IZANGO DA KOLORE NAGUSIA?



Kirola nagusi urte osoan

Pozik! Horrela amaitu dute Multikiroletako antolatzaileek aurtien ere. Urtetik urtera herriko umeengan arrakasta gehiago dihardute izaten Multikirolek eta aurtien ez da gutxiagorako izan. Eneko Garcia Multikirolen koordinatzailearekin egon gara eta kurtsoaren balorazioa egin digu.

Eneko Garcaren berbetan Multikirolen kurtsoa ondo joan da. *"Bidea daukan ekintza da eta pentsatzen dut umeak pozik ibili direla aurtien"*. 458 ume aritu dira aurtien Multikiroletan, *"iaz baino zertxobait gutxiago, baina hori kurtsoen arabera da, batzuetan ume gehiago eta bestetan gutxiago daudelako. Portzentaiei dagokionez, iazko edizioen antzerakoa izan da parte-hartzea"*.

Iaz kirol berria waterpoloa izan bazen, aurtien patinajearena izan da

txanda. *"Arrakasta izan du patinajeak umeengan, iaz waterpoloak eduki zuen moduan. Beraz, datorren urtean seguru aski berriz egingo da patinajea"*, dio Garciak.

Aurreko urtean bezala, aste osoan monitoreen begiradapean kirola egiten aritzen dira umeak eta asteburuetan Eibarko hainbat kirol taldeko arduradunak inplikatzeko dira.

Multikirolak amaitu berri egin badira ere, datorren kurtsoari begira lanean dihardute antolatzaileak. *"Joan den astean amaitu zen matrikulazioa, baina irailean beti dago azken unean apuntatzen den norbait"*, aipatzen du koordinatzaileak. Oraindik nondik norakoak zehazten badaude ere, baliteke kirol berriak egitea datorren kurtsoan. Hala ere, Eneko Garciak ez du ezer aurreratu nahi dena ondo zehaztuta egon arte.

Multikirolak

Ikasturtea amaitu da eta, berarekin batera, Multikirolak ere. Urte osoa kirola egiten igaro dute ekimen honetan partehartu duten umeei eta balorazioa egiteko ordua iritsi da. Arrateko Andra Mari ikastetxeko bikote honena, gutxienez, oso positiboa da.



-Heldu da Multikirolen kurtsoa amaierara. Zer moduz joan da urtea?

(Biok): Oso ondo.

(Egoitz): Ni, behintzat, oso gustora ibili naiz.

(Malen): Baita ni ere.

-Zein kiroleetan aritu zarete aurten? Izan ere, bazegoen baten bat berria zena.

(Egoitz): Bai, patinajea berria izan da aurten, iaz

waterpoloa izan zen moduan.

(Malen):

Eskubaloian, foballean eta rugbian ibili gara talde moduan. Gero, atletismoa eta patinajea ere egin ditugu.

(Egoitz): Oso ondo egon da patinajea.

-Zein kirol gustatu zaizue gehien?

(Egoitz): Niri eskubaloia.

(Malen): Nik ez dakit zein aukeratu, denak gustatu

zaizkit asko-eta.

-Eta zein gustatu zaizue gutxienez?

(Biok): Denak gustatu zaizkigu,





**Egoitz San Martin eta
Malen Txurruka:**

**“Kirol guztiak gustatu
zaizkigu”**

egia esan.

**-Zenbatgarren
aldia da
Multikiroletan
aritzen zaretena?**



(Malen): Nik
aurten hartu dut
parte 1go aldiz.

(Egoitz): Niretzat
bigarren urtea izan
da.

**-Zergatik eman
zenuten izena?**

(Biok): Kirola
egitea gustatzen
zaigulako,
beste barik.

**-Datorren urtean
berriz ere
apuntatuko
zarete?**

(Biok). Bai, bai.

**-Aurten egin
dituzuen**

**kiroletatik at,
gustatuko
litzaizueke
besteren bat?**

(Egoitz):

Saskibaloia egitea
ondo legoke, eta
hockey-a ere.

(Malen): Hori da,
patinekin.

**-Animatu duzue
gelako jendea
Multikiroletan
parte-hartzeko?**

(Egoitz): Bai, hor
ibili gara

apuntatzeko eta
apuntatzeko

esaten eta lortu dugu.

Txikinkesta

Zein asmo daukazu udarako?



ASIER LOIDI.

13 urte

Lehelengo Nafarroara juango naiz eskubaloia eta igeriketa egittera udaleku moduko batera. Gero, Debara juango naiz eta han surfian ibilliko naiz.

NATALIA PRINTES.

11 urte

Hasiera batian Ermuan geldittuko naiz etxian, baiña gero aittakin Kordobara juango naiz. Han lagunak eta lehengusuak dittut.



Sanjuanak ate joka dittugu eta honekin batera, udako oporrak. Urte osuan lan gogorra egiñ ostian, heldu da atsedenerako sasoia. Oso ondo pasau danok eta asko disfratau.

YANIRE MAQUIEIRA.

12 urte

Lehelengo Galiziara juango naiz eta gero Errioxara. Galizian famelixa dana dakat eta urtero noia bisitan. Gaiñera, lagunak dittut eta eurekin jolasten dot.



ALEX FEIJOO.

12 urte

Galiziara juango naiz lehelengo eta gero Torrevieja. Itsasuan ibiltzen naiz Torrevieja; asko gustatzen jata han jolastia. Galizian famelixa eta lagunak dittut.




LORE-KOROA

*Udaberriarekin loreztu egin
dira zelaiak eta eskulan
koloretsuarekin gatoz
oraingoan. Udaberriko
errege/erreginak izan nahi?*

MATERIALA:

- Kartulina zuri eta berde bana.
- Itsasgarria edo grapagailua.
- Koloreetako arkatz edo errotulagailuak.
- Guraizeak.

**1-Irudian azaltzen den
bezalako loreak marraztu
kartulina zurian.**



**2-Marraztutako loreak
margotu koloreetako arkatz
eta errotulagailuekin.**



3-Loreak moztu.



4-Kartulina berdearen tira bi moztu eta grapagailu edo itsasgarriarekin itsatsi zirkulu edo eraztun bat eginez.



5-Eraztunean loreak itsatsi itsasgarri edo grapagailuarekin. Prest daukazu koroa!



Zer irakurri

MARIXA POETISA

MARIXA POETISAREN LANABESAK BIHOTZA ETA POLTSA BAT DIRA. BIHOTZEZ ASMATZEN DITU OLERKIAK ETA, IDATZI ONDOREN, BERE POLTSAN GORDETZEN DITU. GAUR LAPURRETA BAT CERTATU DA URIAN, ETA POLIZIA BATEK, MARIXA POLTSA BETETA DARAMALA IKUSITA, GURE POETISA LAPURRA DELA PENTSATU DU. MARIXAK EZETZ; POLIZIAK, BERRIZ, BAIETZ. HAU DA HAU ZORITXARRA, MARIXA! ALDE EGIN BEHARKO DUZU, KARTZELAN LO EGITERIK NAHI EZ BADUZU.



JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAN

MEDELLINGO LOKATZA

CAMILOK ETA ANDRESEK EGUNAK KALEZ KALE GORA ETA BEHERA IBILIZ EMATEN DITUZTE MEDELLINGO AUZOAN, HAU DA, MUNDUKO LEKURIK ONENEAN. CAMILOK ARGI IKUSTEN DU, HANDIAK DIRENEAN, LAPUR TALDE BAT ZUZENDUKO DUTELA. BAINA ANDRESEK EZ DU LAPURRA IZAN NAHI. HORI BAI, BETI EGONGO DIRA ELKARREKIN. BAINA LIBURUTEGIAN SARTZEAK BEHARBADA BIZITZA ALDATUKO DIE.



ITSASOKO LOTI EDERRA

ISTORIORIK EDERRENEAN MAGIA BERRESKURATU NAHIAN, LOTI EDERRAREN IPUINA HARTU ETA BERE KASA KONTATU DU EGILEAK: PERTSONAIA ETA EGOERA BERRIAK ASMATUZ, GIRO BERRIETAN KOKATUZ (PALAZIOTIK, ARRANTZALE ETA ARTZAIN ARTERA), ETA IDAZTEN ARI DENARI BURUZ IRATXO ADAR-JOTZAILE BATEKIN ETENGABE EZTABAIDATUZ. HALA, UMOREZ ETA LILURAZ HORNITURIKO LIBURUA ONDU DA. HAUR NAHIZ HELDUENTZAT EGOKIA, BETIKO GOGORATZEN DIREN KONTAKIZUNEN ALTZORRERA ICAROTZEKO MODUKOA.





EZETZ ASMATU

EZETZ ASMATU... IKASTEKO ETA JOSTATZEKO AUKERA ESKAINTZEN DUEN BALIABIDE INTERAKTIBOA DA. LIBURU HONEKIN AINTZIRAN ONDO PASA ETA BERTAKO MUNDO ZORAGARRIA EZAGUTUKO DUZU. HORRETARAKO GUK EGITEN DIZKIZUGUN GALDEREI ERANTZUN BEHARKO DIEZU. EZ ANAZTU MIHITIK TIRA EGIN BEHAR DUZULA... ORRIALDE BAKOITZEAN SORPRESA BAT DUZU ZAIN.



EBELINA MANDARINA

NIRE ETXEA KOLORE ASKOTAKOA DA. URDINA DU GOIKO ALDEA, UDAKO ZERUAK BEZALA, ETA GORRIA BEHEKOA, AMAK EZPAINAK MARGOTZEN DITUEN KOLORE BEREKOA. NIRE ETXEA TOKIZ ALDATZEN DA EGUN BATETIK BESTERA, BAINA EZ NAIZ BARRASKILOA. NI ZIRKU BATEAN BIZI NAIZ. EBELINA DUT IZENA. AMAK ETA AMONAK ERE EBELINA DUTE IZENA. HORREGATIK DEITZEN DIDATE EBELINA MANDARINA. HORREGATIK ETA NIRE ILEAREN KOLOREAGATIK.



MAYA ETA ANIMALIEN BABESLEKU BURUGABEA

ERREGALIZ TALDEA LAU NESKEK OSATZEN DUTE. LEO, MAYA, DOTTE ETA FANNY DUTE IZENA ETA LAGUN MINAK DIRA. OSO ONDO PASATZEN DUTE ELKARREKIN, BAINA BATZUETAN EGOERA ZAILEI AURRE EGIN BEHAR IZATEN DIETE. HALA ERE, ONIK ATERAKO DIRA BETI EUREN ADOREARI ETA ADIMENARI ESKER. MAYAREN AITONAREN USTEKABEKO HERENTZIAK ERREGALIZTARREI BARATZE BATEAN ETA BERTAKO TXABOLAN JOLASTEA ERRAZTUKO DIE.

EIBARKO LIBURUDENDETAN SALGAI

Javier Egaña

Danbor Nagusia

Sanjuanak ekintzaz beteta datoz; baina, urtero-urtero berezia den ekintza bat bada, hori Umeen Danborrada da. Herriko ume asko biltzen da bertan eta danbor hotsekin herria girotzen dute. Aurtengoan La Salle ikastetxeko Javier Egaña izango da Danbor Nagusia.

-Hurbil dago Umeen Danborradaren eguna. Prest zaude?

Bai. Entseguak egin ditugu eta badakit zer den egin behar dudana. Oraindik falta zaidana da pregoia jasotzea, baina bestela dena dago prest.

-Urduri zaude?

Beno, pixka bat bai. Jende asko biltzen da danborradaren ibilbide osoan eta urduri ipintzen dit horrek. Baina agian hasieran izango da soilik, gero ohituko naizela pentsatzen dut.

-Asko entsaiatu duzue?

Maiatzetik daramagu entseguetan eta astean birritan batu gara. Ondo prestatu dugula pentsatzen dut; denok dakigu zer egin behar dugun eta piezak nola jo.

-Aurretik ibili izan zara danborradan?

Bai, badaukat esperientzia. Orain dela 3-4 urte hasi nintzen, ondo gogoratzen badut behintzat.

-Pentsatzen zenuen danbor nagusia izango zinela?

Beti pentsatu izan dut zuzendaria edo izan nitekeela; baina tira, beste barik, ez nuen etengabe pentsatzen.

-Zer egin behar du Danbor

Nagusiak?

Orokorrean besteei erakutsi zer egin behar duten, danborra nola jo ibilibidean zehar.

-Kasu egiten dizute?

Bai, gehienek bai. Badaude batzuk nahiko txikiak direnak eta zertxobait gehiago kostatzen zaie, baina ahalik eta hobetoen egiten saiatzen dira.

-Zergatik aukeratu zaituzte zu Danbor Nagusi bezela?

Bost lagunek eman genuen izena eta gure artean zozketa egin genuen. Orduan, ni irten nintzen aukeratua.

-Zer sentitzen duzu Danbor Nagusia izatean?

Oso pozik nago; izan ere, txikitatik gustatu izan zaidan zerbait da eta denbora daramat danborradan irtetzen.

-Guraso eta lagunek zer diote horren aurrean?

Pentsatzen dut gurasoak ni baino urduriago daudela.

-Zein pieza duzu gustokoen?

'Pantxika'. Pieza berria da eta aurreten estreinatuko duzu.

-Ohore bat, beraz, zuretzat pieza hau Danbor Nagusi bezala estreinatzea.

Bai, noski, pozgarria da.

-Zer duzu nahiago: danborrada zuzentzea edo danborra astintzen ibiltzea?

Nahiago dut zuzentzea. Danborrak bere pisua dauka, eta ibilbide luzearen ostean gero eta pisutsuagoa izaten da.



SATURN

KAIKO
NUT SATURN
NAIZ?

NIRE JEDRA
KONTATUNO
OZUET




EGUN BATEAN
ORBITATIK IRIZEN
AINTZEN

ETA ZULO BELIZ
BAT IKUSI NUTEN



ZULO HARTAN
SARTU
AINTZEN



MUNDU ZORAGARRI
BAT ZEN

HEMEN
GERATU
AINTZEN

